


ETXEAN BEZELA MAKALENAK LEHENAK EL MUNDO, NUESTRA FAMILIA



Gesto Diocesano de Solidaridad 2017

MARTXOAK 31 MARZO BILBON

Beharbada ezaguna egingo jaku Mafaldaren irudi hau: munduari tenperatura hartzen deuto, bendak ipini, errezetak ezarri...



1.- Zer dau gure munduak?

- * Aberatsenen eta behartsuenen arteko desbardintasunaren zauri soziala hasiz joan da 1980tik aurrera eta nabarmen areagotu da azken urteotan. Zortzi lagunen esku dago 3.600 milioi lagunek, gizadiaren erdirik behartsuenak, dauan aberastasunaren besteko aberastasuna.
- * 1990 eta 2010 bitartean hazkundeak eragin handiagoa eduki izan baleu ahulenen artean, gaur egun 700 milioi lagun gitxiagok –gehienak emakumeak– jasan izango eukean pobretasuna.
- * Emakumeek, gizonek baino gitxiago irabazten dabe, hain zuzen, %31tik %75era bitarteko portzentajeetan, alde handiak dagozalako soldatetan eta nabarmenak diralako beste hainbat desbardintasun ekonomiko. 170 urte beharko geunkez emakumeek gizonezkoen besteko soldata jasoteko.
- * Garapen bidean dagozan herrialdeetako enpresek zerga-ordainketak saihestearen inguruan egindako kalkuluen arabera, urtean 100.000 milioi dolar geratzen dira ordaindu barik, hau da, eskolatu barik dagozan 124 milioi mutiko eta neskatori hezkuntza emoteko beste diru.
- * 2015ean, 167.000 lagun hil ziran gatazka armatuen eraginez. Eragin-gune nagusiak Siria eta Iraken badagoz be, makina bat herrialdetan dago hedatuta indarkeria. Munduan 35 gatazka armatu inguru dago: 13 Afrikan, 12 Asian, 6 Ekialde Hurbilean, 3 European eta 1 Amerikan.
- * 2016an, 5.000 etorkin inguru ito ei zan Mediterraneoko uretan, hau da, 2015ean baino %25 gehiago, errefuxiatuen azken krisia hasi zanetik marka guztiak apurtuz.
- * BEeko herrialdeek Italia eta Greziatik 160.000 errefuxiatu lekualdatuko ebezala agindu eben eta 12.000 baino ez dabez onartu. Bestalde, Espainiara, errefuxiatuak birkokatzeke egitaraua martxan jarri zanetik, 744 lagun baino ez dira etorri eta gobernuak 15.000 ekarteko konpromisoa hartu eban.
- * Klima aldaketaren eraginez ozeanoaren maila zentimetro bat igoten dan bakotxean, milioi 1 lagunek euren bizilekuetatik alde egin behar izaten dabe.
- *



Logika merkantilista ekonomiaren arloan hedatzeaz gainera, bizitzako eremu guztietara zabaltzen da, gizakiaren duintasuna ukatzen dauan kultura sortuz. Dirua sasijainkoa jarten da erdi-erdian eta ez gizabanakoa. Oso gatxa da alkartasun-egitasmoa garatzea eta giza familia lez biziitzea. Axolagabekeria orokor bihurtzen dau, txirotzea sortuz eta gizatasuna kenduz.

“Ia konturatu barik, besteen oihuen aurrean errukitzeko gaitasuna galdu egiten dogu, ez dogu negarrik egiten besteen zoritxarra ikusita eta ez dogu inongo interesik hareek zaintzeko, guri ez dagokigun eta beti besteei dagokien erantzukizuna balitz lez. Ongizatearen kulturak anesthesiatu egiten gaitu eta urduritu egiten gara merkatuak oraindik erosi ez dogun zerbait eskaintzen badau, aukerarik ez izatearren ezerezean gelditu diran bizitza horreek inondik inora asaldatzen ez gaituan ikuskizun hustzat doguzalarik” (E.G., 54).

2.- Beste hainbat errealidadek be harritzen gaitu

Egia da! Zailtasunak azaltzen diranean, esate baterako, krisia, langabezia, gaixotasuna, desgaitasuna, beharizan larriaren aurrean bizten dan alarma..., gure inguruan alkartasun-sareak martxan jarten dira, “ahal dauana irten daitela zulutik” joera orokorrari ‘aurre’ egiten saiatzen diran dinamikak. Hortxe, batez be familian, lagunen artean... jarten dira martxan. Euskarri bihurtzen dira: zainduz, lagun eginez, maitasuna emonez, eutsiz, beharizanak asez, harrera eginez, atak zabalduz... Familian, hurran doguzanakaz, maite doguzanakaz “hain erraza” bada... zergaitik ez dogu gauza bera bizitzen eta egiten giza familia handiagaz? Zergaitik ez amets egin eta mundua geure familia lez ikusi?

3.- Norabidez aldatu behar dogu

“Gauza askok aldatu behar dau norabidez, baina, beste ezer baino lehen, gizadiak berak aldatu behar dau. Jatorri bera dogula konturatu behar dogu, alkarregaz garala mundu honetako kide eta guztiona dala etorkizuna. Horretaz jaubetu ezker, uste sendo, jarrera eta bizimodu barriak sortuko dira. Nabarmena da, beraz, kultura, espiritu eta hezkuntza arloan dogun erronka handia eta honek birsortze prozesu luzeak eskatuko dituana”. (Laudato Si', 202)

“Beste iparrorrazak” gidatu behar gaitu; mundu zuzen eta solidarioagorantz garoazan iparrorrazak; erdi-erdian personak jarten dituan iparrorrazak; Hegoaldera, azkenengoengana, kanpoaldeetara, baztertuengana, txikiengana... begiratzen dauan iparrorrazak. Maitasunaren gidaritzapean gidatzen gaituan iparrorrazak.

“Hainbat iparrorraz, ez asko,
konturatzan hasi dala dinoe,
eta, lotsatuta,
ohiko jarrera itsutuaz,
alderdikioiaz, kontserbadoreaz damututa,
hegoaldea seinalatzen
hasi dirala,
batzuk, ez asko.

F. León de Aranoa



Galdera honek durundi egin daiala gure barruan: «*Non da zure anaia?*» (Has 4, 9a). Jaungoikoak esku-hartzen dau, gizon-emakumeari bere kideakaz dauan erantzukizunaz jaubearazoteko. «*Kainek ez dakiala erantzuten dau. Beragaz ez doa, antza, anaiaren bizia, zoria; ez dau uste hori dagokionik. Axolagabe jokutzen dau anaiagaz, nahiz eta biek jatorri bera izan. Penagarria! Bai zoritxar handia anaiarentzat, familiarentzat, gizadiarentzat! Hauxe da gizon eta emakumeen arteko axolagabetasunaren lehen adierazpena. Ostera, Jaungoikoa ez da axolagabea. Errukia da Jaungoikoaren bihotza. Horregaitik, bere seme eta alaben familia handi eta bakarreko kide autortzen diran guztien bihotza izan behar dau; gizon eta emakumeen duintasuna –Jaungoikoaren arpegiaren isla bere izakiengan- jokoan dan lekuetan taupadaka dabilen bihotza» (Frantzisko Aita Santua. Bakearen aldeko jardunaldirako mezua 2016).*

4.- Erronka handia dogu aurrez aurre. Mundu barria amestu!

Hesiak altxatuz, etiketak jarriz, jentea eskubideak emoten dabezan paperakaz markatuz antolatu dogu gure mundua. Barruan zagoz ala kanpoan zagoz. Eskubide batzuk dituzu ala ez dozu eskubiderik. Bertokoa zara ala arrotza... Ez litzateke liluragarria, guztion etxea zatekeen mundua, leku mugatu, giltza eta morroilo bako mundua?



Beharbada ezinezko irrika da, baina ez pentsaezina. Izan be, neurri handi batean, fedea mugak apurtzea, hormak botatea, guztion etxea dana bizilekutzat hartzea eskatzen deusku. Danok dogu geure etxea, lurra, herria. Etxean lez sentituko ahal gara edozein lekutara joanda be! Ez ahal da inor «arrotz» sentituko! Mundua guztion etxea izan daitela, hesiak desegin daitezala eta guztiok dakigun maitasunaren hizkuntza erabili daigula.

Gizadiak badau oraindik guztiona dan etxea eraikitzen laguntzeko gaitasunik. Ezinbestekoak dira guztion talentuak eta konpromisoa. “*Giza familia bakarra garala*

sinistu behar dogu. Ezin da egon bakartuko gaituan hesi politiko edo sozialik, eta horrexegaitik, ez dago lekurik axolagabetasunaren orokortzerako be” (L.S., 52). Giltza, geure burua seme-alaba, anai-arreba lez autortzea eta alkartasuna sortzea.

5.- Jaungoikoak amesten dauan mundua: familia bakarra. Konpartitutako mahaia. Danok gagoz konbidatuta

Gure ahaleginen, irriken, asmoen burutze bikaina gertatuko dan mahaian beragaz jarteko dinosku Jaungoikoak. Bere seme eta alaba guztientzat jaia prestatzen dihardu, danak bere ondoan gura ditualako bizitza osoaz gozatuz. Batez be egoera txarrean dagozanak gura ditu mahaiaren inguruan. Auzotarrakaz, hurkoakaz, urrunekoakaz, bide-ertzean dagozanakaz, ezezagunakaz, bidean doazanakaz... mahai beraren inguruan eseri.

«Otordua prest da, zatoze!». Maitasun eta senidetasunaren jairako konbitea da. Inor arrotz sentituko ez dan, danok lekua izango dogun, iristen dan edozeinek jarteko aukera izango dauan mahaiaren inguruan familia izan.

Egia da, batzuek konbite horri uko egiten deutse; badagoz joan gura ez dabenak be; eta konbitea axolagabetasunez hartzen dabenak, preminazkoagotzat jotzen dabezan beste interes edo ardura batzuk dabezalako eta alkarte egitasmo horretan partaide izateko deirik entzuten ez dabelako.

Hitza entzungo dogu Konbidatuta gagoz. Bazatoz otordura?

“Mahaikide batek esan eutsan Jesusi: -Zorionekoa Jaungoikoaren erreinuko otorduan parte hartuko dauana!

Jesusek erantzun eutsan:

–Gizon bat afari handi bat emotekoa zan eta jente asko konbidatu eban. Afarikoan, morroia bialdu eban konbidatuei esatera: ‘Etorri, dana gertu dago-eta’. Baina bata bestearen ondoren danak atxakiak jarten hasi ziran. Lehenengoak esan eutsan: ‘Soloa erosi dot, eta ikustera joan behar dot; parkatu arren’. Beste batek barriz: ‘Bost idi-pare erosi dodaz, eta probatzera joan behar dot; parkatu, arren’. Eta hurrengoak: ‘Ezkondu barria naz eta ez naiteke joan.’



Honen guztiaren barri nagusiari emotera itzuli zan morroia. Etxeko nagusia biziki haserratu zan eta morroiari esan eutsan: ‘Hoa bizkor herriko plaza eta kaleetan barrena, eta ekarri hona behartsu, elbarri, itsu eta herrenak’. Geroago, morroiak esan eutsan: ‘Egin dot, jauna, zuk agindua, eta oraindik badago tokia’. Orduan, nagusiak esan eutsan: ‘Hoa bidez bide eta bazterrik bazter eta sarrarazo jentea barrura, etxea bete dakidan. Egia esan, konbidatu hareetako batek be ez dau nire afaria dastatuko’ (Lk 14, 15-24)


Giza familiaren batasuna, senide alkartasuna, deitu egiten gaituan Jaungoikomaitasunetik sortzen da. Samurtasunezko keinu batzuek dana aldatzen dabe. Bategite-, alkartasun-, osotasun-uneak, eraikitze, gure historiari beste norabide bat emoteko, familia egiteko zoru sendo bihurtzen diran uneak.

6.- Etxean lez, familian lez, makalenak lehenak. Doearen logika sendotu

Familia, hartu-emonean bizitzea da, etxeko sentitzea, etxean lez sentitzea, beste batzukaz mahai beraren inguruan esertzea. Aitak, amak, anaiak, arrebak, semeak, alabak, amamak, aititak... gure gizon-emakume mapa, mapa pertsonala eratzen dabe eta balio, jokaera, ikuskera, bizitzari aurre egiteko era... jakin batzuk irakasten deuskuez. Familian, hartu-emonean, alkarri lotuta jaioten gara. Eta lotura horri esker bizirik irauten dogu, hazi egiten gara eta garapen biologiko, psikologiko eta kulturala dogu. Duintasuna, maitasuna ezinbesteko doguzala alkarri autortzea ezinbestekoa da zorioneko izateko. Senidetasunaren eskola da.

Honan adierazo eutsen Frantzisko Aita Santuak familiei (2015eko apirila): *“«Anai» eta «arriba» hitzak oso gustukoak dira kristautasunean. Eta, familia esperientziari esker, kultura eta sasoi guztiek ulertzen dabezan hitzak dira. Familian, anai-arriben artean, giza bizikidetasuna ikasten da, hau da, zelan bizikide izan gizaratean. Beharbada, beti ez gara horretaz konturatzen, baina familia da, hain zuzen be, munduan senidetasuna txertatzen dauana. Familian, senidetasunak aparteko distira dau anai edo arribatxo ahulenei, gaixoei edo desgaituei eskaintzen jaken zaintze, pazientzia eta maitasuna agertzen diranean.*

Gauza bera gertatzen da kristau senidetasunean. Txikienek, makalene, behartsuene bihotza bigundu egin behar deuskue: guri arima eta bihotza beteteko «eskubidea» dabe. Bai, geure anai eta arriba dira eta anai eta arriba lez hartu behar doguz. Hau gertatzen danean, behartsuak etxekotzat hartzen doguzanean, gure kristau senidetasuna suspertu egiten da barriro be. Kristauak, hain zuzen, behartsuen eta makalen bila ateraten dira, ez egitarau ideologiko bat beteteko, Jaunaren hitzak eta ereduak danok anai-arriba garala dinoskuelako baino”.



Hauxe da Jaungoikoaren maitasunaren eta gizon eta emakumeen arteko zuzentasunaren oinarria. Gaur, sekula baino gehiago, ezinbestekoa da senidetasuna gizaratearen, munduaren erdi-erdian jartea. Maitasuna, errukia, gupida eta alkartasuna izan daitezala gure bizitzarako benetako egitarau. Ondorengoa

adierazoten dauan alkartasuna: «Guztion ongizatearen alde eten barik ahalegintzeko erabagi sendoa; hau da, guztion eta bakotxaren ongizatearen alde, benetan guztiok izan gaitazan guztion erantzule», errukia senidetasunetik sortzen dalako.

7.- Mundua familia bihurtzeko, etxean bezala makalak lehenak izateko nahia geure egingo dogu


Maitasunak soinez soin,
nekez neke
eta malkoz malko
ipiniarazoko baleusku.

Bat egingo bagendu.
Alkarregaz.
Batzuk besteakaz.

Urrearen eta elurraren gainetik,
urretik eta ezpatatik harago.

Pitzadura bako multzoa
eratuko bagendu
taupada egiten daben sei
mila milioi bihotzakaz...
zein arkitektura ederra
altxatuko litzatekeen
lokatzatik!

Ángela Figuera



BAKARKA ETA TALDEAN HAUSNARTZEKO

1. Zeinuaren kartelean arreta jarri. Lehen begiradan, zer gertatu jaku deigarri? Goiburuan arreta jarri. Zer dinosku?
2. Materiala irakurri eta deigarrien gertatu jakuna azpimarratu. Ondoren, taldean batera jarriko dogu.
3. Zelako mundua amesten dogu? Zerk laguntzen deusku bestelako mundua egin daitekela pentsatzen, alkartasunaren, batasunaren, giza familiaren ikuspuntutik begiratzen? Zerk galarazoten dau?
4. Gure inguruan, senidetasunaren, konpartitutako mahaiaren hazi diran esperientzia zehatzak gogora ekarriko doguz. Zelan kutsatu beste batzuei bizitzeko, familia egiteko era hori?
5. Familia, senidetasun egitasmo honetan aurrera egiten lagunduko deustan konpromiso zehatza adierazoko dot. Familia lez, zer egin daikegu mundua "geure familia" bihurtzeko? Hainbat egitasmo eta ekimen garatzen ari da helburu horri begira. Hona hemen batzuk: (<http://zeinu.bizkeliza.org>)
6. Zelan landuko dogu gure pastoral barrutian, alkartean, taldean, bizigiroan... Alkartasun Zeinuak aurten proposatzen deuskuna: "El mundo, una familia. Etxean bezala makalenak lehenak"?

ELEIZBARRUTIKO ZEINUA – 2017

1.- Gure alkarte eta taldeetan egiteko

Hona hemen gure proposamenak. Garatu ahal izateko, lagungarri osagarriak dago.

ZEINUAREN TXOKOA

ALKARTE OTOITZA

GIZARTE GELA

2.- 2017.eko Martxoaren 31ko (barikua) Jardunaldia

GOIZEZ:

9,30 h. ESKOLA-UMEEN BILKURA ETA IBILTALDIA

Moyua plazatik

10,30 TAILERRAK

ARRATSALDEZ:

17,00 – 19,00 TXOKOZ TXOKO. Alkartasun ibilpidea

19,30: ZEINU PUBLIKOA Areatza - Bilbao